

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Material Rechazado.
Material Rechazado.
Autoekoizpena.
Iraupena: 36'30".
7 euro.

Amorrua eta melodia, biak punkaren eremuan

MATERIAL RECHAZADO da une honetan Arrasaten punk-rocketik hurbilen dagoen taldeetako bat. Euren kabuz kaleratu duten estreinako disko honean euskarazko, gaztelarazko eta ingelesezko kantuak batu dituzte, kritikaz eta amorruz betetako hitzekin. *Odio por odio* eta *Cárceles de asfalto* kantuetan antzeman daiteke Eskorbutoren eragina; *Ya no te queda nada* hit-ean, berriz, *Vómito* zein MCD gogora ekar ditzakete; baina

badira bestelakoak ere. Gitarrek eta melodiekin garrantzia handia baitaukate arrasatear hauen kantuetan eta 1977ko Ingalaterrako oihartzunez gain, beraien herrian hain presente dauden Oi! doinuak, edo Social Distortion eta antzeko ikonoen eraginak ere agertzen dira. Azken horiena, batez ere, armonikak protagonismoa hartzen duen kantetan suma daiteke. Ildo horri jarraitu nahi diote hemendik aurrera.

Material Rechazado

«Ondo dago kooperatibak lana ematea, baina protesta eta inkonformismoa ezabatzen ditu»

JOSETXO ARANTZABAL / GOIENKARIA

Izen bikaina taldearena, zorionak! Fabrikako montaje katetik baztertuak izan zarete?

Eskerrik asko! Bai, fabrikan dauka jatorria taldearen izenak. Hasieratik izan gara apur bat adaptaezinak. Arrasateko beste jende askok baino punk sentimendu gehiago izan dugu betidanik, eta sasoi baten Arrasateko taldeetatik apur bat baztertuta geunden. Hitzak oso ezkorrek dira. Ez dago positibotasun izpirik?

Tira, gu alaiak gara, baina bizi-modua gero eta txarragoa da, natura hondatuta, AHT, baloreak –familia, laguntasuna...– galtzen doaz, konformismoa... Hori guztia ikusita, zaila da positiboa izatea.

Arrasaten ez gara ba kooperatibarekin ondo bizi?

Dirua badago, baina etxe guztietan ez gara hain ondo bizi. Ondo dago kooperatibak lana eta dirua ematea, baina protesta eta inkonformismoa ezabatzen ditu. Gainera, badirudi telegidatuta gaudela: ingeniariak izan behar dugula, izaera galtzen dugu.

Zer da punka zuentzat?

Jarrera bat. Bizitzeko, sentitzeko eta batez ere espresatzeko



modu bat, artea ere izan daitekeena; jakina, protestarekin lotutakoa. Hala ere, ez genuke esango gu punkyak garenik. Batzuk konturatzen ez diren arren, gaur egun ezin gara 80ko hamarkadaren moduan bizi; garai hori pasa zen. **Euskarazko, gaztelarazko eta ingelesezko hitzak dituzue. Zer hizkuntzatan aritzen zarete erosoago?**

Aitor: Gaztelaraz erosoago idazten dut hizkuntza horretan gehiago irakurtzen dudalako, baina euskaraz

gehiago abesteko ahalegina egin nahi dut. Gainera, euskarazko talde gutxi entzun izan ditugu; batez ere, Delirium Tremens eta Ume Gaiztuak. **Formaldu egin zaretela esango nuke, orain taldea serioago hartzen duzuela...**

Agian pasatuta jotzen ikasi dugu; ez gara askorik aldatu. Hala ere, egia da taldea apur bat serioago hartzen dugula. Ilusio bat aurrera eramateko lan egin behar da eta horri eutsi gura diogu. ■